

PROIEKTUA

arigera

**Helduen euskalduntze-alfabetatzea
suspertzeko proiektua**

AEK EUSKALTEGIA

UDAL EUSKALTEGIA

ELGOIBARKO UDALA

ELGOIBARKO IZARRA

AURKIBIDEA

0.- SARRERA	3
1.- HELBURUAK	5
1.1.- 3 urteko helburuak	5
1.2.- Urtez urteko helburuak	6
1.3.- Helburuen azalpenak	8
2.- APLIKAZIO ESPARRUA	11
3.- PLANGINTZAREN IRAUPENA	12
4.- PLANGINTZAREN ORGANIGRAMA, FUNTZIOAK ETA FUNTZIONAMENDUA	13
4.1.- Organigrama	13
4.2.- Funtzioak eta funtzionamendua	14
4.2.1.- Herri mailako euskalduntze-alfabetatze batzordea	
4.2.2.- Talde eragilea	
4.2.3.- Proiektuko lau erakundeak	
4.2.4.- Ikasle taldea	
4.2.5.- Teknikaria	
5.- BALIABIDEAK	17
6.- ZER EGIN HELBURUAK LORTZEKO?	18
7.- PLANGINTZAREN SEGIMENDUA ETA BALORAZIOAK	25
8.- AURREKONTUA	26

0.- SARRERA

Eskuarteak daukazu proiektua, Elgoibarren helduen EUSKALDUNTZE-ALFA-BETATZEA, suspertzeko intentzioarekin idatzita dago.

Izan ere, Elgoibarren euskararen normalizazio ahaleaginean lehenengo euskararen erabilera baldin badauka ere, ezin dugu inolaz ere ahaztu helduen euskalduntze-alfabetatzea. Helburuetan sakonago azalduko dugun arren, ikus dezagun zein diren, besteak beste, proiektu honen beharraz ohartarazi gaituzten hainbat kezka edo galdera:

- Oraindik ez al dago euskara ez dakien askotxo Elgoibarren (% 30)?
- Zenbat jendeak lagatzen dio euskara ikasteari matrikulatu eta gutxira? Zergatik? Zenbatek amaitzen du ikaskuntza prozesua?
- Jendea konturatzen al da euskara ikastearen esanahiaz eta garrantziaz?
- Euskara ikasleek ba al dute laguntzarik euren ikaskuntza prozesua amaitzeko? Elgoibarko gizarteak laguntzen al die euskal giroan integratzen? Eta euskaltegian ikasitakoa praktikan jartzeko?
- Eta euskaldun zaharrok, egiten al dugu zerbait euskara ikasleei laguntzeko?
- Zenbat euskaldun dago gutun edo ohartxo bat idazteko gauza ez dena? Euskara ondo dakigula uste dugunon artean, zenbatek burutzen ditugu eguneroko behar linguistikoak benetan zuzen? Ez al dago euskararen ezagutza maila igotzeko premiarik?

Galdera hauek eta beste askok kezkatuta ekin diogu lanari. Gainera euskara ikasleek bakarrik ikusten dituzte euren buruak. eta errefortzu planak behar dituztela uste dugu.

Berriz diogu egoera ez dela argi gorria piztekoa, baina herri normalizatu batek Elgoibarrek egun duen baino hizkuntz gaitasun altuagoa edo hobea behar du bizimodu normal bat egin nahi badu. Euskararen ezagutza maila igotzeko plangintza serio batek mesede handia egingo digu, plangintza ondo gauzatzen asmatzen badugu behintzat. Euskaltegiek egun betetzen duten funtzioaren osagarri eta lagungarri izango den proiektu bat prestatu behar dugu.

Dagoeneko Elgoibarren hainbat erabilera proiektu martxan dauzkagunez, aproposa izango da euskararen EZAGUTZA suspertzeko proiektu bat ere martxan jartzea.

Ikastetxeek eta gurasoek haurren hizkuntza gaitasunaren ardura daukatenez (euskal ereduen bidez lehenengoen eta hizkuntz transmisioaren bidez gurasoek), guk helduen euskalduntze alfabetatzea eta hizkuntzaren hobekuntza suspertzeari ekingo diogu. Eta guk diogunean hiru frentetan banatzen ditugu ardurak eta erantzukizunak:

- EUSKALTEGIAK: AEK eta Udal Euskaltegia.
- ELGOIBARKO IZARRA Elkarte.
- UDALA.

Euskaltegiak zuzen-zuzenean ukitzen ditu proiektu honek, izan ere eurak dira helduen euskalduntze-alfabetatzearen ardura eta erantzukizun nagusia dutenak. Euskaltegien inplikazioa derrigorrezkoa izango da.

ELGOIBARKO IZARRA da Elgoibarren euskararen normalizazioaren aldeko mugimendu sozialaren lekukoa duena. Bere inplikazioa ere oso garrantzitsua izango da. Euskaltegiek gizartearen inplikazioa behar dute, gizarteak zeresan handia baitu helduen euskalduntze-alfabetatzean. Elkarrekin paper eraginkorra joka dezake atal honetan.

Azkenik, baina ez garrantzia gutxiagorekin, Udala daukagu. Udalak bere ardura guztiak hartu eta bete behar ditu euskararen normalizazio saiakeran. Administrazioak ezagutzari dagokionean ere eragile eta laguntzaile izan behar du.

Beraz, helduen euskalduntze-alfabetatzea suspertzeko proiektua martxan jartzeko intentzioa daukagu Elgoibarren. Jarraian datorrena egin nahi dugunaren azalpena da. Besapean intentzio onak, helburu mordo bat eta ilusioa dakargu. Hirurak beharrezkoak eta ezinbestekoak. Ea denak bide onetik eramaten asmatzen dugun eta gure ahaleginak behar besteko emaitzak eskaintzen dituen.

AEK EUSKALTEGIA

ELGOIBARKO UDALA

UDAL EUSKALTEGIA

ELGOIBARKO IZARRA

1.- HELBURUAK

Ondoren, datozen 3 urteetan proiektu honek lortu behar dituen helburuak ikusiko ditugu.

1.1.- 3 URTEKO HELBURUAK

Hiru urteotarako HELBURUAK definitu eta zerrendatzerakoan, hiru atal ezberdin bereiztu behar direla uste dugu:

- A.- Helburu orokorrak.
- B.- Erdaldunei dagozkien helburuak.
- C.- Euskaldungoari dagozkien helburuak.

A.- HELBURU OROKORRAK:

- A.1.- Proiektuaren PROMOZIOA egitea.
- A.2.- Euskaltegiako mundua BISTARATZEA eta NABARMENTZEA.

B.- ERDALDUNEI DAGOZKIEN HELBURUAK:

- B.1.- Azken urteotako matrikulazio jaitsiera geratzea EZAGUTZA bultzatzeko.
- B.2.- Euskara ikasleen MOTIBAZIOA lantzea.
- B.3.- Matrikulazio kopurua igotzen ahalegintzea EZAGUTZA bultzatzeko.
- B.4.- Euskara ikasleengan ERABILERA suspertzea (euskaltegitik kanpo).
- B.5.- Euskara ikasleen gizarte INTEGRAZIOA bultzatzea.

C.- EUSKALDUNEI DAGOZKIEN HELBURUAK:

- C.1.- Euskara GAITASUNA hobetzea:
 - C.1.1.- Eskaintza sektorialak eginez.
 - C.1.2.- Ikastaro espezifikoak eskainiz.
 - C.1.3.- Alfabetatzea suspertuz.
- C.2.- Euskaldunak erdaldunen gizarte integrazio prozesuan inplikatzeko.
- C.3.- Elgoibarko berbetia ezagutzera ematea.

1.2.- URTEZ URTEKO HELBURUAK:

Jarraian, 1.1. puntuko helburuak lehentasunen arabera eta proiektua hiru urterako dela jakinda sailkatuko ditugu.

1. URTERAKO HELBURUAK

1.- HELBURU OROKORRAK:

- 1.1.- Proiektuaren PROMOZIOA egitea.
- 1.2.- Euskaltegieta mundua BISTARATZEA eta NABARMENTZEA.

2.- ERDALDUNEI DAGOZKIEN HELBURUAK:

- 2.1.- Azken urteotako matrikulazio jaitsiera geratzea EZAGUTZA bultzatzeko.
- 2.2.- Euskara ikasleen MOTIBAZIOA lantzea.

3.- EUSKALDUNEI DAGOZKIEN HELBURUAK:

- 3.1.- Euskara GAITASUNA hobetzea:
 - 3.1.1.- Eskaintza sektorialak eginez.
 - 3.1.2.- Ikastaro espezifikoak eskainiz.

2. URTERAKO HELBURUAK

1.- HELBURU OROKORRAK:

- 1.1.- Euskaltegieta mundua BISTARATZEA eta NABARMENTZEA.

2.- ERDALDUNEI DAGOZKIEN HELBURUAK:

- 2.1.- Matrikulazio kopurua igotzen ahalegintzea EZAGUTZA bultzatzeko.
- 2.2.- Euskara ikasleengan ERABILERA suspertzea (Euskaltegitik kanpo).

3.- EUSKALDUNEI DAGOZKIEN HELBURUAK:

- 3.1.- Euskara GAITASUNA hobetzea:
 - 3.1.1.- Alfabetatzea suspertuz.
 - 3.1.2.- Eskaintza sektorialak eginez.
 - 3.1.3.- Ikastaro espezifikoak eskainiz.
- 3.2.- Euskaldunak erdaldunen gizarte integrazio prozesuan inplikatzeko.

3. URTERAKO HELBURUAK

1.- HELBURU OROKORRAK:

1.1.- Euskaltegietakoa mundua BISTARATZEA eta NABARMENTZEA.

2.- ERDALDUNEI DAGOZKIEN HELBURUAK:

2.1.- Matrikulazio kopuruak igotzen ahalegintzea EZAGUTZA bultzatzeko.

2.2.- Euskara ikasleengan ERABILERA suspertzea.

2.3.- Euskara ikasleen gizarte INTEGRAZIOA bultzatzea.

3.- EUSKALDUNEI DAGOZKIEN HELBURUAK:

3.1.- Euskara GAITASUNA hobetzea:

3.1.1.- Alfabetatzea suspertuz.

3.1.2.- Eskaintza sektorialak eginez.

3.1.3.- Ikastaro espezifikoak eskainiz.

3.2.- Euskaldunak erdaldunen gizarte integrazio prozesuan inplikatzeko.

3.3.- Elgoibarko berbetia ezagutzera ematea.

1.3.- HELBURUEN AZALPENAK:

Jarraian, arestian zerrendaturiko helburuei buruzko azalpenak emango ditugu.

A.- HELBURU OROKORRAK:

A.1.- Proiektuaren promozioa egitea:

Geroago aipatuko dugun bezala, proiektua 16 urtetik gorako elgoibartar guztiei zuzenduta dagoenez, Elgoibarko herriari proiektu berri bat martxan jarri dugula jakinarazi behar diogu. Proiektuaren zergatien eta nondik norakoen berri ematea ezinbestekoa da. Guztiontzat baliagarria izan daitekeen proiektu honi, ahalik eta etekin handiena atera behar diogu eta zenbat eta herritar gehiago inplikatu, emaitza hobeak lortuko dira. Beraz, eta beste ezertan hasi aurretik promozionatu egin beharko dugu, Elgoibar normalizatzen laguntzeko bide bezala.

A.2.- Euskaltegietako mundua bistaratzea eta nabarmentzea:

Orain artean euskaltegiak gerizpean egon dira, Elgoibartarrok ez dugu euskaltegiek egin duten lanaren berri izan.

Euskaltegien historia, bertako langileak nortzuk diren, lortutako emaitzak, nortzuk ari diren euskara ikasten, zerk bultzatuta, nork ikasi duen, ikas prozesuan arazorik izaten duten, ikasteko egin behar den ahalegin handia, e.a., guzti hori ezezaguna da elgoibartar gehienentzat.

Beraz, proiektu honen lanetariko bat hori izango da, Elgoibarko euskaltegietako mundua bistaratzea eta prestigioa ematen saiatzea.

B.- ERDALDUNEI DAGOZKIEN HELBURUAK:

B.1.- Azken urteotako matrikulazio jaitsiera geratzea EZAGUTZA bultzatzeko:

1993-1994 ikasturtetik hona euskaltegietako matrikulazioak jaitsiera nabarmena izan du eta jaitsiera hori geratzea izango da proiektu honen hasierako lanetariko bat.

B.2.- Euskara ikasleen motibazioa lantzea:

Euskara ikasleei ikaskuntza prozesua nolakoa den azaldu behar diegu. Ikasleek zer egiten ari diren jakin behar dute. Gustura sentitu behar dira eta hori ez da hain erraza ikas prozesuan zehar ikasleen motibazioak gora behera handiak izaten baititu. Beraz, ikasleak motibatuta mantentzen saiatu behar gara.

Ikasleak animatu egin behar ditugu eurak hasitako bidean azkeneraino irits daitezen, hizkuntza baten ikasketa prozesuak amaierarik ez badu ere. Euskararen ikaskuntza ibilbidean (norabidea edozein izanda ere) lagunak behar dituzte ibilaldia atsegina eta errazagoa izan dadin. Ibilbidea egiteko lagunak dituztela ikusi behar dute, bakardadearen sententzia gailendu ez dadin. Hizkuntzaren hiru ontzietako urak (ezagutza, erabilera eta motibazioa) etengabeko jarioan egon daitezen errefortzu jarduerak prestatu behar ditugu.

B.3.- Matrikulazio kopurua handitzen ahalegintzea EZAGUTZA bultzatzeko:

Jaitsiera neutralizatzea lortzen dugunean, matrikulazio kopurua igotzeko ahalegina egin beharko dugu. Elgoibarko erdaldunak euskara ikastera animatu behar ditugu herri honetan integratzeko lehen pausu bezala. Zenbat eta erdaldun gehiago animatu hobeto. Ea 10 urte barru gaur egungo %30 (Elgoibarko erdaldun kopurua) jaitea lortzen dugun.

B.4.- Euskara ikasleengan erabilera suspertzea (euskaltegitik kanpo):

Euskara ikasleek ez dute euskaltegian ikasitakoa hemendik kanpo praktikan ipintzen. Euskaltegia eta kalearen arteko zubia eraiki nahi dugu. Gainera, kalean euskara erabiltzeko beldurra kentzen lagundu behar diegu.

Euskara ikasleek beraien ikas prozesua arrakastaz bukatu ahal izateko, ikasitakoa praktikan ipintzen lagunduko dien eta euskaldunak ere inplikatu gaituen plangintzaren bat martxan jartzea ezinbestekoa dela iruditzen zaigu.

B.5.- Euskara ikasleen gizarte integrazioa bultzatzea:

Euskara-ikaslea, poliki-poliki eraiki behar dugun euskal hizkuntz komunitatean integratzea nahi dugu. Gure helburua Elgoibarren hizkuntz komunitate normalizatu eta egituratua eraikitzea izanik, erdaratik euskararako ibilbidean dauden herritarrei hizkuntz komunitatean integratzen lagundu behar diegu. Euskararen munduan sartzen doazen heinean, komunitate berri bateko parte direla sentitu behar dute, gurasoen edo-eta euren jaioterriko ohitura eta hizkuntza mantentzeaz batera.

Euskara ikasten duten erdaldunak euskaldun bezala identifikatu eta onartu behar ditugu, eta ez betirako 'erdaldun' etiketarekin mantendu. Ez dira 'euskaraz dakiten erdaldunak' izan behar, 'euskaldunak' baizik.

Integrazio prozesua burutzeko ez da nahikoa euskara ikasi eta jakitearekin. Integrazioa eta identifikazioa benetakoa izan dadin, herri horren kultura, ohiturak, e.a. ere ezagutzea egokia izan daiteke. Proiektu honen helburuetariko bat, euskara ikasleei euskal kulturaren ateak zabaltzea eta barruan dagoena ezagutzeko gonbidapena luzatzea da.

C.- EUSKALDUNEI DAGOZKIEN HELBURUAK:

C.1.- Euskara gaitasuna hobetzea:

- C.1.1.- Eskaintza sektorialak eginez.
- C.1.2.- Ikastaro espezifikoak eskainiz.
- C.1.3.- Alfabetatzea suspertuz.

Bakoitza dagoen mailatik abiatuta, euskaraz dakigunon euskara maila eta kalitatea hobetu behar dugu, aberastu egin behar dugu. Zenbat eta maila altuagoa izan orduan eta konfiantza handiagoa izango dugu, orduan eta gusturago izango gara geure buruarekin, gure hizkuntzarekin. Hori lortu ahal izateko ohikoak diren ikastaroez gain, sektore edota eginkizun jakinei erantzuteko ikastaroak eskainiko ditugu.

Euskaltegiek eskaintzen dituzten ikastaro gehienak ordu askotakoak izaten dira eta jendea ez animatzeko arrazoietako bat hori izan daitekeenez ikastaro laburrago eta zehatzagoekin saiaturiko gara.

Ikastaroak eskaintzen hasi aurretik euskaldunak motibatu beharko ditugu. Momentu bakoitzean ditugun hizkuntza beharrak euskaraz ondo betetzeko gogoia sentiarazi behar diegu. Halere, kontu handiz ibili beharko gara inor ez mintzeko.

C.2.- Euskaldunak erdaldunen gizarte integrazio prozesuan inplikatzeari.

Askotan euskaldun zaharrok ez gara jabetzen euskaldun berriek euskara ikastea dituzten zailtasunez. Euskaldun berriak euskal komunitatean integratzea nahi badugu, euskaldun zaharrok helburu honek zer-nolako zailtasunak dituen konturatu behar dugu.

Erdaldun batentzat euskara ikasteak zenbateko esfortzua eskatzen duen ulertu behar dugu; euskaltegian ikasten duen hori gizartean praktikan jartzeko zenbat eta nolako zailtasunak dituen jakin behar dugu. Arazo eta trabak ezagututa, errazagoa izango da hauek ekiditea edo arintzea.

Halaber, euskaldun berrien ikaskuntza prozesuan euskaldun zaharrok daukagun garrantziaz ohartu behar dugu. Euskaldun zaharrok zeresan handia dugu euskara ikasleek euren ikaskuntza prozesua burutzeko orduan.

Lagundu egin behar diegu, alboan ikusi behar gaituzte. Elgoibarren eraikitzen ari garen euskal hizkuntz komunitatean integratzeko erraztasunak eskaini behar dizkiegu, eskua luzatu behar diegu.

C.3.- Elgoibarko berbetia ezagutzera ematea.

Alfabetatze, EGA, Euskaltzaindiaren arauak, ..., era honetako ikastaroak urtero eskaintzen dituzte euskaltegiek. Proiektuak, ordea, orain artean eskaini ez den eta galtzen ari den Elgoibarko berbetia ezagutzeko aukera emango digu.

2.- APLIKAZIO ESPARRUA

Plangintza honek gizarteko sektore zabal bat harrapatu nahi du.

Ikus dezagun Elgoibarko gizarteko zein sektoreri zuzendutako plangintza den:

- Elgoibarko erdaldunei.
- Euskara ikasten ari direnei.
- Ikasle ohiei.
- Euskaldun berriei.
- Euskaldun zahar alfabetatu gabeei.
- Euskaldunei orokorrean.

Hasieran esan bezala, plangintza hau helduei zuzendutakoa da. Beraz, 16 urtetik gorako jendea izango da proiektu honetako protagonista.

Ikus daitekeen bezala, haur eta gaztetxoak salbu, ia gizarte osoari zuzenduriko plangintza dugu. Erdaldun eta euskara ikasleek izango dute lehentasuna baina beti ere beste sektoreak ere oso garrantzitsuak direla kontutan izanda.

3.- PLANGINTZAREN IRAUPENA

Proiektuaren iraupena zehazterakoan bi baldintza izan ditugu kontutan:

- Motzegia ez izatea.
- Luzeegia ere ez izatea.

1.- Dinamika berri baten atarian gaudela ulertu behar dugu. Jendea ohitu egin behar da euskararen aldeko proiektu berri hauetara. Eta honek denbora eskatzen du, pazientzia.


2.- Baina, bestalde, ezin dugu alferrikako jardunean luzaroan jarraitu. Asmatu dugun ala ez ikusteko denbora eman behar diogu.

Bi baldintza hauek kontutan hartuta, hiru urte aproposa dela iruditzen zaigu. Batetik, asentatzeko denbora nahikoa delako eta bestetik, loak hartzeko aukerarik ematen ez duelako.

Beraz, plangintza honi hiru urteko iraupena jarriko diogu. Halere, epe hau baino lehen asmatu ez dugula edo kale egin dugula ikusiz gero, proiektua bertan behera utziko genuke. Hau gertatu ezean, hiru urtetan egindako lanaren eta lortutako emaitzen balorazio zehatza egingo dugu eta ondoren aurrera jarraitzea merezi duen ala ez erabakiko dugu.

4.- PLANGINTZAREN ORGANIGRAMA, FUNTZIOAK eta FUNTZIONAMENDUA

4.1.- ORGANIGRAMA:



4.2. FUNTZIOAK ETA FUNTZIONAMENDUA:

Ikus dezagun organo bakoitzak duen funtzioa zein den eta lanerako funtzionamendua nolakoa izango den:

4.2.1.- HERRI MAILAKO EUSKALDUNTZE-ALFABETATZE BATZORDEA:

Zeintzuk osatuko dute Batzordea?

- Euskaltegietako zuzendariak eta ordezkariak (2+2)
- Elgoibarko Izarra Elkarteko ordezkariak (2)
- Udaletxeko euskara teknikaria eta zinegotziak (1+3)
- Euskara ikasleak (2)
- Proiektuko teknikaria (1).

Beraz, 13 lagun izango dira Batzordea osatuko dutenak.

Batzordearen funtzioak: Batzorde honen lehen zeregina, helduen euskalduntze-alfabetatzea suspertzeko prestatu dugun proiektuari bere oniritzia ematea izango da. Bestalde, urteroko egitasmoek eta aurrekontuek ere Batzordearen oniritzia eta babesa jaso beharko dute. Batzordearen beste zereginetako bat proiektuaren segimendua eta zaintza egitea izango da. Halaber, urteroko balorazio teknikoak Talde Eragileak egingo baditu ere, balorazio hauek Batzordeari aurkeztu behar zaizkio eta honek izango du azken hitza.

Amaitzeko, proiektuari lotutako erabaki garrantzitsuak Batzordeak hartuko ditu edo, bestela, bere oniritzia izan beharko dute.

Lan metodologia: Batzorde hau urtean hiruzpalau aldiz bilduko da gauzak nola doazen ikusteko eta hartu behar diren erabakiak hartzeko. Gainera, Batzordea osatzen duten hiru laurdenek hala behar dela hobetsiz gero, edozein unetan bildu ahal izango da Batzordea.

Batzordearen batzarretan esan eta erabakitakoa aktan jasoko da eta batzordekide guztien sinadurarekin onartuko da.

Erabakiak hartzerakoan, ahal dela behintzat, ez da botaziorik egingo, eta beste irtenbiderik ez dagoenean, batzarkide guztien botoek balio bera izango dute. Aparteko garrantzirik ez duten erabakiak hartzeko gehiengo sinplea nahikoa izango da; erabaki garrantzitsuek, berriz, botoen hiru laurdenak beharko dituzte.

4.2.2.- TALDE ERAGILEA:

Zeintzuk osatuko dute Talde Eragilea?

- Euskaltegiako zuzendariak (2).
- Udaleko eta Elgoibarko Izarrako teknikariak (2).
- Proiektuko teknikaria. (1)

Beraz, Talde Eragilea 5 lagunek osatuko dute.

Taldearen funtzioak: Batzordeak onartutako egitasmoa ahal duen ondoen betetzea izango da Talde Eragilearen ardurarik garrantzitsuena. Batzordea, nolabait esatearren, gogoetarako taldea den moduan, Talde Eragilea lanerako pentsatutako taldea izango da, lan praktikoa burutzeko prestatutakoa, alegia. Gainera, Talde Eragilea izango da teknikariari lagunduko diona eta eguneroko funtzionamenduan izaten ditugun arazo eta zalantzak argituko dituena. Amaitzeko, proiektuari buruzko erabaki eta arazo txikiak ere Talde Eragilearen arduraren egongo dira.

Lan metodologia: Talde Eragilea, hasieran behintzat, astero bilduko da. Gainera, teknikariak beharra ikusten duen guztietan ere elkartuko da. Kasu honetan ere erabakiak ez dira botazioz hartuko baina hala egin behar den kasuetan taldekide guztien botoek balio bera izango dute. Kasu honetan erdiak gehi bat (3/2) nahikoa izango da erabakiak hartzeko.

4.2.3.- PROIEKTUKO LAU ERAKUNDEAK:

Arestian esan bezala, AEK euskaltegia, UDAL EUSKALTEGIA, ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkarte eta Elgoibarko UDALA dira proiektu honetako lau eragileak. Lau erakundeak dira proiektua martxan jarri dutenak eta beraiek izango dira proiektua aurrera ateratzeko arduradunak. Lau erakundeak izango dira proiektuaren norabidea erabakiko dutenak eta, neurri handi batean, eurena izango da proiektuaren erantzukizuna.

4.2.4.- IKASLE TALDEA:

Taldearen funtzioak: Aplikazio esparruko sektore ezberdinetako pertsonen iritzi eta oportazioak beharrezkoak iruditzen zaizkigunez, harremanetan egotea ezinbestekoa dela uste dugu. Teknikariak Talde Eragileak pentsatutako egitasmoak azalduko dizkie eta beraien iritzi eta oportazioak ematea izango da talde hauen lanetariko bat. Balorazioak egiteaz ere arduratuko dira talde hauek.

Lan metodologia: Ikasle talde bakoitza hamabostean behin bilduko da.

4.2.5.- TEKNIKARIA:

Teknikariaren funtzioak: Talde Eragileak prestatu eta Batzordeak onartutako plangintza bideratzeko eta burutzeko lan profesionala eskaintzea izango da teknikariaren funtzio nagusia. Bera izango da plangintzari dagokion lan profesionala egingo duena eta Talde Eragilearen zuzendaritzapean egingo du lan. Ezingo du erabaki garrantzitsurik hartu honekin kontatu gabe. Halaber, bere ardura izango da proiektua tentsio puntu egokian mantentzea. Halere, oso argi izan behar dugu proiektua ezin dela teknikariaren esku laga, teknikaria bestean lana errazteko kontratatu baitugu eta ez berak lan guztiak egiteko.

Teknikariak egun osoko kontratuarekin lan egingo du eta 40 orduko lan astea izango du.

5.- BALIABIDEAK

Baliabideak aztertzerakoan, orain arteko proiektuetan bezala, bi baliabide mota bereiztuko ditugu:

- 6.2. Giza baliabideak.
- 6.2. Azpiegiturak.

5.1. GIZA BALIABIDEAK:

Ez dakigu zenbat lagunen beharra izango dugun baina inoiz ez bezalako gizon-emakume sarea daukagu proiektu honen bueltan. Izan ere, lau erakunde gaude proiektuaren atzean eta jende asko inplikatzeko aukeran izango gara. Ez da seinale txarra!

5.2. AZPIEGITURAK:

Udalaren, Elgoibarko Izarraren eta bi euskaltegien azpiegitura eta materialak erabili ahal izango ditugu proiektu honetarako. Dagoeneko prestatu ditugu teknikariarentzako lokala, ordenadorea eta telefonoa, eta aurrerantzean ere ez dugu uste arazorik izango dugunik behar dugun materiala lortzeko.

6.- ZER EGIN HELBURUAK LORTZEKO?

A.- HELBURU OROKORRAK:

A.1.- Proiektuaren promozioa egitea.

- Proiektuaren IZENA (leloa ere bai akaso?) eta logoa pentsatu behar dira. Proiektuarekin identifikatuko den irudi korporatiboa.
- Proiektuari buruzko diptikoa prestatu garrantzitsuena jasoz.
- Aurkezpenak/ Prentsaurrekoa:
 - Publikoa: BARREN eta prentsa (lokala + nazionala)
- Aurkezpen egunean:
 - Lehen bi irakasleak eta bi euskara-ikasle gonbida ditzakegu mahaira.
 - Aurkezpena beti bezalakoa ala zerbait berezia egin daiteke?
 - Kultur etxeko hitzaldi gelan ala Udaletxeko pleno aretoan?
 - Ondo landutako gonbidapen zerrenda. Helduen euskalduntze-alfabetatzean ibilitakoak, euskalgintzan dihardutenak, euskara ikasi dutenak,...
- Diptikoaren buzoneoa edo banaketa selektiboa (herri mailan eta nazio mailan. Euskaltegietara ere bai).
- BARRENen erreportajea.
- Kartelak
- ...

A.2.- Euskaltegietako mundua bistaratzea eta nabarmentzea.

- Barrenen euskaltegiei buruzko gehigarria hilerro:
 - euskaltegiak: historia, irakasleak, emaitzak
 - ikasleak: nor ari den ikasten, nork ikasi duen (ahal izanez gero sektore desberdinetakoak), zergatiak, kezak...
 - euskaldunak: ikasten ari direnak, ikasi dutenak, zergatiak,...
- Elgoibarko helduen euskalduntze-alfabetatzearen historia idatziz jaso.
 - Diptiko batean.
 - Historia ezagutzera eman: BARREN, prentsa, banaketa selektiboa,...
- Omenaldia (Trinitateetan edo ...)
 - Euskara irakasten jardun dutenen zerrenda egin eta omenalditxoa.
 - Euskara ikasi dutenen zerrenda egin eta omenalditxoa eskaini.
 - Musika eta jaia (ikastolako frontoian?)
- Aurreiritzi eta ideologizazioak ezabatzeko zer egin dezakegu?
- Zerbait antola daiteke jaietan, gabonetako azokan (aek-ak egiten du),... bi euskaltegietako ikasle eta irakasleak elkarrekin.

Bi helburu: euskaltegietako mundua kaleratu eta ikasleen parte hartzea bultzatu.
- Euskara ikasleen "eguna" antolatu (2 hilabete behin edo...).

B.- ERDALDUNEI DAGOZKIEN HELBURUAK:

B.1.- Azken urteotako matrikulazio jaitziera geratzea.

- Matrikulazio kanpaina bateratuak: Prentsaurrekoa, diptikoak, kartelak, gutunak,...
- Ikastaro bereziak: (sektorea eta eskaintza kontutan hartuta)(ordu gutxiagokoak)
- Harreman zuzena ikasle potentzialekin.
 - Gurasoak: eskolako materiala, haurren berbetia, erosketak euskaraz,
 - Dendariak: dendako hiztegia, bezeroekiko harreman komertziala,...
 - Jubilatuak.
 - Tabernariak: edariak, bezeroekiko harremana
 - 18-25 urteko gazteak
 - Orokorrean: euskal kantak

B.2.- Euskara ikasleen MOTIBAZIOA lantzea. (1-5 urratsak)

- Euskararen (hizkuntzen) ikaskuntza prozesua nolakoa den azaldu.
- Elgoibarren euskara ikasteak zer esan nahi duen azaldu klasean hitzaldien bidez.
- Euskara ikasi duten herritarren eta urrats altuagotan dauden ikasleen esperientziak azaldu. Klasera eramán beraien esperientzia pertsonalak konta ditzaten (lortu ez dutenen kasuak ere azal die-zazkiekegu).
- Euskararen inguruan gustura mantentzeko jarduera motibagarriak antolatu:
 - Jatorduak
 - Jaiak
 - Irteerak
- Euskara ikasleentzako egokiak diren gauzen promozioa: liburu egokiak, hiztegiak,...

- Euskara eta euskal kulturaren mundua ezagutzera eman:
 - Irteerak (inguruko lekuak, Euskal Herriko leku ezberdinetara, sagardotegi)
 - Jatorduak (euskal kanta herrikoiak)
 - Ikuskizunak, diapositiba emanaldiak, ...
 - Hitzaldiak/mahainguru: (?)

B.3.- Matrikulazio kopurua igotzen ahalegintzea.

(Ikus B.1 MATRIKULAZIO JAITSIERA GERATZEKO pentsatutako jardunbideak)

B.4.- Euskara ikasleengan ERABILERA suspertzea (euskaltegitik kanpo).

(6-8 urratsak eta gutxi gora behera urrats horietan utzi edota ibilitako ikasle ohiak)

- Euskarazko produktuen gida eskaini: liburuak, diskoak, hiztegiak,...
- Barnetegietako informazioa eta laguntza eskaini, eta gonbitea luzatu: familia eta biko-teentzako barnetegiak, asteburuko barnetegiak, akanpadak...
- Aubixa
- Elgoibarko etxe-baserrietan egonaldiak

Mintzamina/entzumena:

- MINTZA LAGUNA egitasmoa.
- Koadrilategi.
- Euskaraz berba egiteko prestatutako jarduerak: irteerak, egonaldiak, antzerako esperientziak dauden herrietako jendearekin trukaketak, poteoa, txoko berezia, ikastaroak, tailerrak, lehiaketak, kafe tertuliak...
- Euskaraz bizi diren gunetan inplikatu.
- Euskara ikasleentzako elkargune bat antolatu: hilero edo zerbait antolatu

Irakurmena (maila baxuan):

- Euskarazko irakur zaletasuna bultzatu: idazleak ekarri, liburuen aurkezpenak...

Idazmena (maila baxuan):

- Ikasleentzako apropos prestatutako lehiaketen bidez.
- Mintza laguna egitasmoan dabiltzan beste herri batzuetako ikasleekin karteatu.
- Gutunak idatzi pertsonaia ezagun eta interesgarriei, hitzaldi edo... gonbidatuz.

B.5.- Euskara ikasleen INTEGRAZIOA bultzatzea.

- Hizkuntz komunitate normalizatua zer den eta nola egituratzen den azaldu.
- Euskal kultura eta historia ezagutzera eman.
- Herriko eta kanpoko euskarazko kultur eskaintzaren informazio berezia eskaini eta parte hartzera animatu/gonbidatu.
- Euskara ikasleen promozioa. Barrenen, diptiko, prentsa: Zein ari den ikasten, zein urratsetan, "euskaldun berrien" izen abizenak, partaide diren komunitate ezberdinetan egiten ari diren lanari balioa eman...
- Beraientzako kultur jarduera bereziak prestatu: hitzaldiak, ikuskizunak, jaiak, kanpainak, irteerak, egonaldiak...
- Euskaldun berriak eta zaharrak nahastuz egitasmo bereziak prestatu.
- Euskaraz bizitzeko herrian dauden aukeren berri eman.
- Euskarazko produktuen promozioa egin, zer dagoen eta eurentzat egokia zer den azaldu.

C.- EUSKALDUNEI DAGOZKIEN HELBURUAK:

C.1.- Euskara gaitasuna hobetzea:

konzienziario kanpainak

C.1.1.- Eskaintza sektorialak eginez. Eskaintza konkretuak eta "motzak". (GUREAN BAIrekin elkarlanean jardun dezakegu)

- Irakasleak
- Guraso taldeak
- Idazkariak
- Merkataritzako langileak
- Enpresariak
- Kirol monitoreak

C.1.2.- Ikastaro espezifikoak eskainiz

Idazmena:

- Idazten hasteko oinarritzko ezaupideak: zenbakiak, s eta z, h-a noiz,...
- Gutunak eta hainbat ohar nola idatzi.
- Idazmen tailerrak.
- Euskaltzaindiaren azken arauak

Mintzamina:

- Mintzamen tailerrak (euskaraz soltatzeko); ipuin, abesti, irrati saioak...

Irakurmena:

- Irakurmen tailerrak: nola irakurri BARREN eta Egunkaria.
- Literaturarako sarrera.

C.1.3.- Alfabetatzea suspertuz.

- Alfabetatu gabeko elgoibartar asko gaudela azaldu (kontuz nola esaten den).
- Alfabetatzearen beharraz jabetzeko sentsibilizazio kanpainak euskaltegiekin batera.

C.2.- Euskaldunak erdaldunen integrazio prozesuan inplikatzeari buruzkoak.

- Euskara ikasteak suposatzen duen erronkari jabetzeko sentsibilizazio eta kontzientziarazi kanpainak, hitzaldiak, mahainguruak eta informazio kanpainak.
- Zeregin honetan bustitzea eta laguntzea dagokigula azaldu.
- Laguntzeko prest dauden euskaldun zaharren dtu basea egin.
- Euskaldunen laguntza bi eratakoa: erabileran laguntzeko(Mintza-laguna, Koadrilategi) eta integrazioan laguntzeko.
- Euskaldunon etxeetan egonaldiak.
- Euskara ikaslearen "inguru euskaldunaren" garrantzia azpimarratu.
- Euskaldun zaharrentzako dekalogoak (Euskara ikasleekin nola portatu jakiteko).

C.3.- Elgoibarko berbetia ezagutzera ematea.

- Ikerketa egin ostean, hainbat bide egon daitezke bertan jasotakoa zabaltzeko: ikas-taroak, hitzaldiak, BARREN,...

HELBURUAK LORTU AHAL IZATEKO ZENBAIT IDEIA

- Proiektuan parte hartu nahi dutenen datu basea egitea egokia izan daiteke. Ikaragarri erraztu eta merkatuko du jardueren promozio lana.
- Euskaltegietan, ikasleentzat zerbait berezia prestatu?? Aurkezpen publikoa baino lehen.
- Mintza laguna eta antzerako proiektuak martxan dituzten herrietako elkarte/euskaltegiekin el-kartu.
- Talderik gabe gelditu direnekin zerbait egiten ahalegindu.

7.- PLANGINTZAREN SEGIMENDUA ETA BALORAZIOAKO

Proiektu guztietan gertatzen den antzera, honetan ere berebiziko garrantzia daukate SEGI-MENDUAK eta BALORAZIOEK.

Prestatuko ditugun plangintzek eta egitasmoek eraginik duten ala ez jakin behar dugu. Zer egin den ondo eta zer ez hain ondo, zer aldatu behar den, zer hobetu behar den, ...

SEGIMENDUA:

Segimendua aipatzen dugunean eguneroko lanari lotzen gatzaizkio. Plangintza honek segimendu zehatz eta iraunkorra behar du. Egiten dugun guztiaren segimendua egitea komeni zaigu, soltean eta kontrolik gabe ezer gera ez dadin.

Talde Eragilea izango da segimendua egiteaz arduratuko dena, nahiz eta azken hitza herri mailako euskalduntze-alfabetatze batzordeak eman behar izango duen.

BALORAZIOAK:

Ez dute aurrekoek besteko maiztasuna izango. Balorazioak jarduera bakoitza egin ostean egingo ditugu. Jarduera bakoitzaren balorazio sakona egingo dugu.

Jardueren balorazioak ezezik, urteko jardunaren balorazioa ere egin beharko dugu urtarrilean.

Azkenik, hiru urteak pasa ostean, plangintza osoaren balorazioa egin beharko dugu asmatu dugun ala ez jakin eta jarraipena zein eratara eman behar diogun erabakitzeko.

Hemen aipatuko ez baditugu ere, balorazioak egiteko metodologiak ere prestatu beharko ditugu egitasmoak prestatzen ditugunean.

Jarduera bakoitzaren balorazioak egiteaz Talde eragilea arduratuko da, eta segimenduarekin bezala euskalduntze-alfabetatze batzordearen oniritzia beharrezkoa izango da.

8.- AURREKONTUA

Aurrekontuari dagokionean, bi diru irteera garrantzitsu izango ditu proiektu honek:

- 8.1. Egitasmoaren diru kostua.
- 8.2. Teknikariaren soldata.

8.1. EGITASMOAREN DIRU KOSTUA:

Lehenengo urteko egitasmoa finantzatzeko milioi bateko diru kopurua izendatu dugu.

8.2. TEKNIKARIAREN SOLDATA:

2.800.000 pta. urteko x 3 = 8.400.000 pta.